OTSALLA
13
Eguena
Bilbao, 1936

EUSKADI

ARPIDE-SANEURIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 ifko. iru lle.
Bilbao'atazkua ... 11,25 " "
Idazki-itunmena ... 62,00 " urtez
Atzefijetakuak ... 112,50 " "

Beldayen itunduba

XXIV urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 7.219 zenbakija

Euskaldunak, entzun!

Amoruz eta gorotoz beteriko irain eta geyegikeri asko yaurtiten dauskuez abertzaleej egunokaz, alde bateko eta besteko laguntxoak. Alderdi guztietatako ikusi ezin eta arreriotasuna gure aurka yagi dirala dirudi oraingoan; baña Bilbao ko "La Gaceta del Norte" deritxon egunkaritik egun batean eta bestean yaurtiten dauskuezanak, beste guztiak baño sakonagoak, mingarí ta samiñagoak dira askozaz bere guretzako; ez, aitaturiko egunkari oiek berez, bere izakeraz eta indarez besteak baño garantzi aundiagorik izan leikealako, ez oiegaitik, baña bai emen berago agertuko ditugun zioak dirala ta ez dirala.

¿Katoliko izeneko egunkari ori goizean-goizean zelango eskuetan yausi ta zelango adimenetan sartzen dan oartu ete dozue iñoiz? ¿Ez dozue ikusten goizean goiz eleizatik urteten dauan gizon edo emakume zintzo ta kristiñau on arek egunean-egunean artu ta irakurten dauan egunkaria zein dan? ¿Ez ete dozue au iñoiz oartu?

Yaraitu egiozue bada, gure idazlan moteltxo au goitik beera irakurten, berton, euskaldun guztientzat, "goiko, erdiko eta beerengo gizarte maletan bizi diran euskaldunentzat", gauza oargarlak eta egi sakon-sakonak aurkituko dituzue urean eta.

Orain dirala ogeta amasei urte edo agertu zan gure Bizkai maite onetan "La Gaceta del Norte" deritxon egunkari au. Bizkai'ko katolikoak aldeztale bat bear eben, egunean-eguneango bizkortzale bat; bertotik, eleizearen arerioak, bear ebn guztietan eta al zituen eretietan astintzeko; Eleiza Ama Donearen egiak euskaldunen artean zabaldu eitezan laguntzeko; Kristo'ren siñismena gure erian zelanbait yagoteko, eta itz edo berba batez esatearen, gure erlejiñoari ondotik naiz uriñetik ukutu leikioen arazoak zentzunez ebasteko. Onetarakoxe bakar-bakarik sortu zan egunkari ori, eta ikurin orixe alde guztietatik zabaltzea izan da beti egunkari oren zeregiña.

Lan edera eta onuratsua benetan gure ustez egunkari orek bere gain artzen ebana aldi aretan, erabagi txalogarla guztiz, Bizkai'ko katolikoak egunkari ori sortzearekin artu ebena. Baña aurera yaraitu baño lenago, ez daigun aiztu, ene euskaldun irakurle maite-maiteak, uñengo diñogun au: **"La Gaceta del Norte" deritxon egunkaria ezetariko politika usain barik sortu zala, gure erian erlejiñoaren arazo eta auziak aldeztuteko bakar-bakarik yayo zala.**

Auxe ixan da ba, ordutik aurera politika bako katoliko geyenak gure erian artu ta irakuri izan daben egunkaria, eta berton egun batean eta bestean agerturiko aolku eta onuak itsu-itsuan zaindu eta gorde izan ditue gaur artean Euskaleri'ko katoliko askok eta askok, ori olan egitetik, eleizeari eta gure siñismenari mesede aundiak etorkiezala uste bete-betearekin.

Egi biribil-biribilak dira ba, oretariko katoliko on eta zintzo oren adimenetarako "La Gaceta del Norte" oretan agertzen diran asmo ta uste guzti-guztiak, zuzen-zuzenak egunkari orek agintzen dituan bide guztiak, ta beronek erakutsi eta irakasten dabena, buruz-belari siñistu daroe, ta artez-artez bete bere bai, euren katolikotasunak olantxek egitea agintzen dautselako.

Eta len aitatu doguna gogoan artu ezketiño, ez da mirari ori olan izatea, eta ezta ta, katoliko on askorentzako, siñismen arazoetan, "La Gaceta del Norte" orek esaten dauana azkenengo itza edo goitiko berbea legez izatea. Olantxek artu izan dabe urte askoren buruan, eta gaur bere olantxek izan bear dauala uste dabe. Ez dauke ba gure ustez ezetariko erurik gogo oneko katoliko zintzo eta leyal onek.

Ondotxo daki Bizkai guztiak guk gaur emen diñogun au, eta beste iñok baño askozaz obeto bariz, egunkari orj egin eta arteztuteko zeregiña bere eskuetan artu dauan gizon bafu zitaldunak.

Or gorago ainbat eta ainbat bidar aitatu dogun zorioneko "La Gaceta" ori bere lenengo bideetatik zindoro ibili izan baldin balitz, bere lenengo urteetako bideeri zuzen eta artez yaraitu izan baldin baleutse, ez genduan guk urean gaur, aurean ditugun papel txatal onek lero samingari onekin baltzituko; baña tamalez, olantxefi esan nai dogu ¡tamalez!, egunkari ori egin eta arteztuteko zeregiña eta ardurea bere eskuetan artuta daukan jaun orek, siñeskintza arazoetan gure gañetik yariak aurkitzen diran agintariak agerturiko aolku eta onuak alde batera utzi, ta beste bide batzuetatik egiten asi da oraingoan, berofen yardunakin Bizkai'ko katoliko asko ta askoren adimenetan naste izugaria sorturik.

Argitu daigun zerbait naspil au alegiñez.

Egun gitxi baru izango dira auteskundeak Españia guztian, eta beti legez, alderdi batzuk beste batzuen aurka yagi dira, ta alkafen aurez-aure yafi. Badira efi oretan siñismendun gizonak eta baita siñismen bakoak. Azkenengo onek alkaregana batu, ta alkartze gogora egin dabe oraingoan, Eleiza Ama Donearen egiak, kristiñau sendia eta gizarteko bakea zuzitu nayean, beste aldetik ostera, siñismendun gizonen aldetik, lau edo bost alderdi alkafegana yo dabe gorien indar oferi zelanbait aurka egiteko; baña Ebroz beste aldera ez dago alderdi bakar bat, bere indar utsekin gorien alegiñeri eutsi al izateko, eta au dala ta, alkartze zabal bat egin bear izan dabe danon artean.

¿Nortzuk sartu dira alkartze zabal oretan? Guztitariko alderdiak, karlistetatik asi, eta gure siñismenaren adiskide aundi-aundiak ez diran alderdi batzuetaraño.

Alderdi onek alkartze oretan sartzen ez daroe uste bardiña; batzuek, gure siñismenaren egiak aldeztuteko sartuko ziran bear bada, baña beste batzuek, Lerroux eta bere lagunak burutzat daukenak, ez dira oregaitik sartu, beste zio batzuekaitik baño, euren sakelak zainduteko ustearekin urean.

Euskaleria'n ostera ez dago arazoa era onetan, au ondo baño obeto dakie "Gaceta" bedeinkatu ori egiteko zeregiña daben gizonak. Euskaleria'n badago alderdi osnatsu eta sendo bat, bere indar bakarekin gori ta gorizken alegiñak zapaltzeko duin dana, Alderdi Abertzalea. Bein baño sariago erakutsi dau alderdi onek guk emen diñogun au, eta emengo katolikoak alderdi oneri emon bear dautse sutsu ta gartsu euren laguntasun guzti-gustia "Gaceta" oferi garamonik egin barik.

Bilbao'n eta bere inguruan gorlak gañetik ez urtetea nai baldin badozue, etori euskaldun danak, "goikoak, erikoak eta beerengo maletan bizi zarenak" gure alderdiari laguntasuna eskintzen, eta guk bakar-bakarik, gure indar utsarekin atara al izango ditugu bein-betiko gure lur maite onetatik gori, gorizkak eta onen adiskide guztiak.

"La Gaceta del Norte" deritxon egunkari orek eskatzen dauan bidea ondo egon leiteke bear bada Ebroz beste aldetik, baña gure aberian ez; gure aberian, len esan dogun legez, badago eleizearen eta gure siñismenaren aurka egiten daben alderdi guztiak bifinduteko berez indar naikoa daben alderdi bat, eta oneri laguntzea da, bai egunkari oren eta baita Euskaleri'ko katoliko guztien lana oraingo auteskunde onetan.

¿Izildu baite bada "La Gaceta del Norte" ori, eta benetako katolikotasunak agintzen dautsan aldera etori beite lenbaitlen, oraingo buruka onetan gorlak eta onen lagunak garaitzarekin urten dagien nai ezpaldin badau beintzat.

etaoin x,te a,

Bere naspil orekin gorian garaitzen lortzen baldin badau bariz, ez daiskula esan emetik aurera lengo bide zuzenetatik dabilenik.

¡Atzera Kristo'ren arerio guztiak, baj agirikoak eta baita euren biurikeriekin oneri laguntzen dautsenak! ¡Aurera abertzaleak, KRISTOREN IKASBIDEA, ABERIAREN BURU YAUBETASUNA ETA GIZARTEKO AUZIETAN BENETAKO ZUZENTASUNA yaritsi artean!

¡Yokatu danok datoren domekan, abertzale legez!

ARUGAIN.

Baserritarrak!

Zuben botuak atrapau gurarik dabiltzan eskumafok edozetariko zemayakaz yatoftzubez. ¡Ez ikeratu! ¿Erentea ordaintzen dautsezube? Esan egiezube beste egin biafik eztaukela.

Urietan bixi diran langiliai eztautsez eskatzen, ba, orelk agiñak erakusten dautsezelako. Zubekans duaz. Gixonak barik gixon-erdiiak zariela uste dabe ta. Olako irañik eztaikezube jazan. Autafki edo boto-bila yatoftzubezan donge orei ez jaramonik egin. Euzkotafak zarie, geure aberi onen semerik onenak.

Botua eskatzen dabenak Elexearen agindúben kontra duaz Elexeak berak erakusten dauskulako iñori eztaikiozula botorik eskatu ez kendu. Bakotxak bere kontzijentzijau dauko ta oren agindubai erantzun biaf dautse.

Eusko-Alderdi Jeltzalia'k

España'ko aldun - etxian aldeztu ebazan Kisto'ren eskubidiak. Latefijaren uskuftzagetasunaren kaltez in andijak egin ebazan. Dibortzijuaren kontra bere abotsa jaso eban.

Parlamentu'tik aldendu ziran 26' garen atalgija onaftu ebenian ango masoi ta dongiak. Euren aftian egozan Lerroux, Salazaf Alonso, Perez Madrigal eta abaf. Doipurubak berak zorijonak egin eutsezan geure aldunai. Eta izpafingi gustijak egin eutsezan goralberik edefenak.

Oraintsungo kortietan, be, Kistaf ikasbidia'ren aldez jagi ziran. Gil Robles-eta ostera kaltez. ¿Nortzuk dira, ba, katolikubak? Euzko-Alderdi Jeltzalia'kuak.

Gayak

¡LAU EGUN...!

Bilbao'ko "Gacetatxu" atsotxu ezeskafijak olantxe zenbatuten dauz igandera bitafteko egunak.

¡Lau egun...! ¡Iru egun...! ¡Egun bi..! ¡Egun bat...! ¡Ordu batzuk...!, ¡minitu bat...!, ¡une labuftxu bat!, eta ¡gabon jaunak...!

"Gacetatxu" gaxo ezeskafijaren oyu lafi oneik, urkamendirako epatuta daguanaren azken-orduko oyu lafijak dira.

"Gacetatxu" bijufijaren amufua, datofen igandian amatuko da, ba. Bitaftian, baña, oyu-egingo dau... Zarata egingo dau... Irintzi egingo dau... Afantza egingo dau... Mufusa egingo dau. Zaunka, ausi egingo dau... Miau egingo dau, eta bere abo zikin amufatutik, bitsa ta edena botako dauz...

¡Lau egun...!, iru, bi, bat, azkenengo unia amaitzen yakanian amufu gustijak urkamendijan laga dagixanian, mututa geldituko da, ilda... ¡Efukarija!

AUTAFKIJA, ¿NORI EMON?

Autafkija baten emoten da. Eta berian, autafki-ontzira saftu baño lenago, emon biaf dan botua nori emon biaf yakon, ondo be ondo begiratu biaf da. Autesle bakotxaren etofkixuna; zorijona edo zoritxafa, bakotxak emoten daben autafkijan dago, ba.

Autafkija ezta iñorena, norberena baño. Eta norberena dalako, norberak gura dauan lekura emon leike.

Zuk, irakufle, kistafa, ¿nori emongo dautsazu? ¿Eskumen ixena aftuta "antirrevolucionarios"-entzat autafkija eskatzen dautzubenai? ¿Eskumen ixena aftuta, "erlejiñua" ta Elexa deuna aldeztuten datofzala diñuenai?

Kistafak, benetan kistafa ta Elexa daunaren aldezlia danak, eskuma ixeneko ofei autafkirik ezin emon ixango dautse. Eskuma ixeneko ofein aftekua dozu, ba, ondiño oraintzurafte Bilbao'ko "Gacetatxu" atso iguingafijak "el trágico" ixenaz ixentetan eban Maura'taf Mikel elexa-efetzale gaztua...

Eskumen ixenian boto-eske yatoftzuzenen aftekua dozu, beñola Barcelona'n lekaime efugiak lotsagarijan imiñita kaliak-ziaf tatafezka erabili ebazan Lerroux "efeboluziñarijo" ankefa be.

"Katolikuen" ixena aftuta autafki-eske etofiko yatzuzanen aftekua dozu, Melquiades Alvarez Efoma'ko Doipuruba'ren esanera buruba makuftu gura ezta ibili ixan dan Elexa-areyo agirikua be.

Beraz, irakufle, kistafa ba-zara ta uskuftzea, erlejiñua aldeztu gura ba-dozuz, gura, uskuftzea ta Elexa deunaren areyuak diran ofei, zeure autafkijaz beintzat, ezin lagundu zeinkijue, ezta ezetara be.

Orduban, irakufle, zure autafkija, ¿norentzat ixango da? Sabin Irakasle kistafak irasi ebanetik ona JAUN-GOIKUA eta LAGI-ZARA aldeztuten darayan alderdi kistafarentzat.

¿Efeboluziñarijuak garala? Ori, egirik esaten ikasi barik dagozan straperlotafak esango dautzube. Egiz eta benetan ezagututen gatubezanak, baña, beste gauza bat esango dautzube: Efkala edo Efepublikea etofi-bafi zanian; matxiñadea atxakitzat imiñita elexak efetan eta lekaime ta lekaidiak euren lekaretxietatik jaufti ta laidoztuten ziranian, ¿nortzuk ixan ziran Elexa, lekaidetxe ta enparaukuen aldezle jagi ixan ziranak? Abeftzaliak, ¡abeftzaliak bakafik!...

Abeftzaliak ixan ziran lekaidetxietan gudaritzea egiten ebenak. Abeftzaliak bakafik ixan ziran elexak zaindu ta benetako "efeboluziñarijuei" elexak efetako suba amatetan eutsenak. Enparaukuak, ostera, gauf eskumen ixena aftuta gurutzea aufetik imiñita "katoliku" gustijen ugazabeak bai-liran "efeboluziñuari" atzerantz eragiteko boto-eske yatofkuzanak, euren etxietan saftuta koldaf batzuben antzian ostendu ziran.

Beraz, irakufle, ofei botua emoten dautsanak, matxiñadiari emoten dautsa. Datofen igandian, guk ez-eze, lekaidetxietako praile ta mojatxubak be, botua emongo dabe. ¿Nori? Eurak jakingo dabe nori. Eurak bai-dakije nortzuk garan, eta eskuma-ixenian yuakezanoik nortzuk diran be...

Eurak ba-dakije afisku-aldijan eskuma-ixeneko ofeik zer egin ixan eutsen, eta abeftzale-alderdijak zer egin eutsen be. Eurak dana dakije. Beraz, jakiñen ganera egiten daben obenaren efudun be, eurak ixango dira.

"Gacetatxu" irakufi, ta "Gacetatxu"n zabalgundia egiten daben abade batzuk be ba-dira. Uskuftza deunaren zorijonerako, baña, "Gacetatxu" deungia irakufi ta "Gacetatxu" gaiztuaren aldezko zabalgundia egiten dabenak, gitxi be gitxi dira.

Eta gitxi ofeik be, "konpesonarijuan" saftzen diranian, "Gacetatxu"-ren bijufikerijak aldeztuteko adore barik geratzen dira. Egija, egi utz-utza autoftu biaf dan lekuban aufkitzen diranian, guzufa aldeztuteko adore barik geratzen dira.

Bestela, irakufle, "Gacetatxu"ren oraingo zabalgunde iguingafijaren aldez agirijan dabiltzan jaupari banaka ofekafie zuzendu zafeze. Zuzendu ta euren oñetan auzpeztu zafeze, eta autofle-antzo, auzi onetzazko eretxija eskatu egijozube...

Eta euren erantzuna entzun dagixubenian, beriala ikusiko dozube: egija bakafik erabilteko egin zan leku aretatik guzufezko irakatsi daungerik iñori emoteko adoredunik, ondiño eztala jayo.

Beraz, irakufle, "Gacetatxu" ta onen buztafi-lagunen zabalgundia, guzufezkua da, Josu-Kisto gure Eroslia gu gaizkatziafen il zan Gurutza Deunaren kaltezko zabalgunde gaiztokitafa da.

¿Kistafa zara? Kistafa ba-zara, zure autafkija JAUN-GOIKUA eta LAGI-ZARA'rentzat da.

¿Jeltzalia zara? Zure autafkija, geure Euzko-Efija'ren aldezlientzat ixango da.

¿Bake-zalia zara? Zure autafkija, matxiñada-aldijetan zeu aldeztuten zatuzan bake-zalientzat ixango da.

¿Lekaidia, lekaimia, abadia zara? Zubek bai-dakixube zer egin biaf dozuben...

Lau egun palta dira, ¡lau egun bakafik...! Igandian gustijok autafkija emoten...

¿AULESTIA'RA BE BAI?

Bai, irakufle, Bilbao'ko "Gacetatxu"-ren edena, Aulestia'raño be eldu da. Eta "Gacetatxu" iguingafijarj abegirik onena egiten dautsana, aulestiaf jator batzuk diñoskubenez, bertako urizaña, bertako "aguazila", Ubila pelotari ospetsubaren ata ei-da.

Emen, Bilbao'n, abeftzale zintzotzat bein baño safijago agertu ixan dan Ubila "aguazila", egun batetik bestera "Gacetatxu"ren otsein biuftuteko, ¿nungo axiak jo dabela, baña? "Gacetatxu"ren guzufak, egun batetik bestera bere otsein apal biuftu ixan daben Ubila pelotari ospetsubaren afari, ¿semiarentzat irabazte obiak iragafften ete-dautsaz, ba?

Abeftzaliak baño, etxekuak baño kanpoko straperluak, ¿laguntza geyago egingo ete dautso?

Dana dala, "Gacetatxu"ren guzufak -bide dirala, kokomafo jantzita ibili ixan diran gixontxu askoren aurpegijetako guzuf-estalki asko, lufera jausi dira, ta estalduta egon ixan diran aurpegijak, agirijan geratu.

Onetzaz asko esango gendukе. Eta esan biafik ba'lego, esan egingo dogu, egija bere lekuban imintia, biafekua da-ta.

¡Bein-edo-bein be jokatu zintzo zeben burubaren alde!

ANTZEZLARIJAK.—Gure Batzoki'ko "Alafasuna" antzezlari taldia Eibaf'en ixan zan igazi dan igandian "Neskazaf" antzeztuten eta poz-pozik etofi ziran.

Ete

IBARANGELUA

¡Aufera, mutilak! ¡Jo ta keya! Euzko-Abeftjaren zorijon-bila edonun eta edozelan ekin biaf dautsagu. Egunotan lana ugari daukagu, baña ez bedi iñortxube alpeftu. Garaitza beñipein geure eskubetan daukagu, baña ez lotan geratuta, ezpada ekiñan bitafez loftuta. Gixonak gixon lez. Emakumiak emakumia lez, datofen igandian danok kofu batian dantzatu biaf dogu. Eskubak bata bestiari emonda "ujuju" ta "ajaja" geure zer egiñak bete ondoren zantzo ta ifintzijak jauftiko juaguz.

Geure efija efime aldatu yaku. Orain eztago antxiñakorik. Aldi batetik onako "kasikeak" ufundu ziran. Palentziafak saspi Kalbo ta gusti anka egin eben. Beste enparau batzuk ixildu ziran. ¡Arenak egin eben! Orain onek beste betiko jaun ta agintari ixan dabezenari emon biaf dautsagu erakutsi garbi bat. Agindu biaf bada agindu, baña geuk geure etxian, eta ez basia baño, be, "tontuaguak" diran kapeladun jauntxubak. ¡Gora Euzkadi ta gora Ibafangelu! Onexek bijok bai geure-geuriak doguz, eta geuriak doguzan -afen geuk zaindu biaf doguz. Norberan etxian, norbera jaun eta jabe. Norberan etxeko artesan eztaki iñok zenbat ufun dagon. Lenengo ta bein geure agindariak loftu biaf doguz, eta ostian efi gustija euzkeraldu. Gastian afteko zaletasuna ikusten da, eta au ikusita itxaropena baukagu. ¡Aufera gastedi zaletsuba! ¡Aufera emakume abeftzalia! ¡Aufera, ta igandian danok txaidera! Danok, gustijok Ibaetako ikastetxietara.

Adi begitxu ikastetxe ofen aufeko orman dozun ikufari. Adi, ta ondo begitu pelota tokijen gañian agiri dan ikufari. Adi, ta ondo begitu elexa aufeko ikufari. Adi, ta ondo aditu geure efiko-etxian daukagun efi-ikuf agirijari.

Andef Deuna'ren kurutz ikufa dogu efijan ikuf-agiri. Bera da, Ibafangelua'n ikuf, agirija. Geure Euzkoikufiñaren kurutz orlegija. AZKATASUN ikufa. Ona emen Ibafangelua'n benetako ikufa. Azkatasuneko ikufa dogu geure efijan elburu. Danon aftian igandian azkatu daigun.

O.

ERRIJETATIK

MARKINA

MUS-TXAPELKETA. — Gure Batzokijan igazi dan igandian amatu zan mus-txapelketea.

PELOTEA. — Pelota - txapelketea be aufera dua. Jayero egoten dira mala bitako pelota-jokuak. Efitafak begi -onez ikusten dabe txapelketa au ta pelotokija bete-bete egon oi-da pelota -jokuok ikusten.

An ikusten dogu gure "Txirget" dana zuzentzen. "Txinpas" ospetsuba be bai bere betiko tokijan, txapel-gorija buruban dabela, jokoko eskuraldijak zenbatzen.

AUTESKUNDIAK. — Ezpa genki igandian doguzala be, ba-dogu nok esan. Etxe gustijak "enpapelau" dabez efijan. ¡Ba-da emen ingija ugari!

Bafiz, belbilak ona ta ara zaratia ta kia darijuela. Gixonak ona ta ara, "margaritak" be bai... Gustijak tatafez oñetako gustijak bifintzen. Danen gañetik Gaitan'ek aldun urten biaf ei -dau.

Guzufa dabil bafiz, lufari ikutzeko be astirik barik: aidian. Gugatik esanalak esaten dabiltz. Egundo Aita Santua'gaz gomutau eztiranak be, egunotan Doipurubari aotan darabiie. Onakorik, onakorik.

Gaitan'ek basefitafai aurten efentako garija be (saldu ezin dabelako) txinditan eruan eragin dautse ta bere saneufitik laufleko bat geyago ordaindu eraginda atan be, baña afpegi latz -latzagaz b ere semiarentzat autafkija eskatu dautse bakotxari.

Batzuri bafiz gogoftasunez alan be. Solo bat bakafik beria dabenari be bao. ¡Basefitafak, kontuz!

Asi dira, beti lez, gauza asko agindúten. Lana, txindija... bide bafijak... Bide bafijak "Txepetx-abixa"raño be. A egin dagijenian belbilian juango gara Deun-Eupeme basatxonera be. Berak aldun urten ba'dagi, ¡emen ixango -i-dira ixateko gauzak! Baña urtengo ba'leu, urten, ta loftu ezin leikijana loftu, orain gauza oretxek agindúten dautsezanai eurai ¡a zelakotxuak egingo leuskijozan! Ondo be ondo dakigu zalduntxu oren bafi aspaldi onetan. ¡Basefitafak, kontuz egunokaz esango dotzubezan guzufakaz!

ITZALDIJAK. — Igazi dan larunbatean emen ixan ziran Argintxona, Urkiaga ta Agife jaunak iragafita eguan itzaldija egiten.

Euzko-Etxia'ko pelota-tokija gonburuz bete zan, eta "microfono" bat jafirik Euzko-Batzokija'n be entzuteko eran jafi eben, eta an be notin asko egon zan.

Basefitaferi bijotz erdi-erdira itz -egin eutsen egi-biribilak esanik eta gure basefitafak bijotzak zabal-zabal eginda etxerat-u ziran, ba argi-argi ikusi eben abeftzaliak zirala bakafik euren aldez zintzo jokatzen ebenak, eta aretxeri autafkija emon biaf eutsela antxe bertan erabagi eben. ¡Edefto, basefitaf gixon eta emakume zintzuak!

OTXANDIANO

¿ZER ETE-GARA?—An Madrid'eko Kongreso-lezean españaf aldunak bafiatu eben alako gauza bakan ezaugarri bat. Euzko-Alderdi afi-bixija. Emeki begira, andik begira eztautse igaro oraindik ze eratako alderdija dan eta ze alditakua dan bez. Eztakije ze afi -tartekua dan. Guk orafik afi-bixi, sugafi andi bat dana bai dakigu. Ze maigoetakua (koloretakua) dan, auxe, ez takigu eta ezin jakin be leikegu. ¿Zoria ala baltza ete-da, gorija ala urdiña? Españaf kolore onek ezin ezagutu leikeguz. ¿Eskumakua ala erekuka ete-da ba? Niri beintzat burubazi-azi egin deuste ta emen naz zerrantz edo inpernurantz doyan ezindala. ¿Zeuk ete-dakixu, irakufle? Afi -bixi, sugafi ori mendi goyetakua alupetz artian baturikua ete-da? Burba andi-andi egin deuste. Ofej jarmon egin ezkero eztau jakingo daonik ez nundik gatozen, ez noruntz goyazan, ez nortzuk garen, ez ezebe.

GEXOTEGIJA.—Efi onetako gexotegiko artezkari-batz bafija ixentau da be ta bere lendakari Landa'taf Arre emakume emokofa da. Atsegifiezyaku batz bafi orl.

Onen aufekoak be zintzo ta leyasunik egijenezkuagaz jokatu eben eren egiñetan, alpefik bate-batzuk barmenkerian jausi dirala uste ixan. Safitan, apalen aftian be bijotz onegixonak aurkitzen dira, mafokeria estuten (despresijetan) dabienak bete edozeñek añian. Nere ustez, leibatza garbi-garbi ibili da bere ardugustietan. Au alan eztala uste dabenak euren efazoyak euko dabez, atxmotxiaka edo umekerijetan ezpadabeintzat. Akatz ofen efasturik be epadabe bafiz, txafto egiten dabe eko gauzak esatiagaz, baita uste tiagaz be.

Efakuntzan jausi dirala esan leijoe artezkari arei, baña iñor atzipafotu (engañau) egin dabienik ez. Ori ez. Gexotegiko efeglamentu bafi ondo edo txafto eratuta egon beharen eretxiz, baña egillak gauf gueza bat esan eta gero beste bat idatzi ori eztabe egin. Ori ez. Ori jakin gura dabenentzat efez jakitekua da.

MITIÑA. — Euzko-Alderdiak geritriko mitiña, lengo igandian ixan zan. Berbalariak bata bestia baño obegon ziran eta txalo bero-beroak eutsiezan.

Urteeran aguratxo batek itandu eutan: zu ¿zein gustau yatzu geyen? Ori da itandua, erantzun neutsan, zein gustauko yatan ba? Gero, ¡afano pola!, apal aufetxoan ikusi neban bere Zabala'taf Miren'egaz izketaldijan Karlistatxua be ba'da ta geldi itxi neitsan geuganatuko dabelakuan. Beregaz berbia amaitu ebanian, neuk itandu neutsan berari: zu ¿zein gustau yatzu geyen? Tira, tira, tira... esanegaz aldendu zan.

Anbote